

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernuak ekonomia sozial eta solidarioarekin duen konpromisoa helarazi die CEPESko ordezkariari

Barkos Lehendakaria eta bi lehendakariordeak zenbait elkartetako ordezkariarekin bildu dira

Martes, 22 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuko Lehendakari Uxue Barkos eta bi lehendakariorde Manu Ayerdi y Miguel Laparra Nafarroako Ekonomia Sozialerako Erakundearen Konfederazioko (CEPES) ordezkariarekin batekin bildu dira gaur goizean Nafarroako Jauregian. Ekonomia sozial eta solidarioaren ereduarekin duen konpromisoa helarazi diete, [programa-akordio](#)an jasotzen den moduan.



Nafarroako Gobernuak CEPESko ordezkariarekin egindako bilera.

Nafarroako Gobernuak era oso positiboan baloratu du bilera, eta CEPESek dimentsio ekonomikoan (enplegu eta garapen ekonomikoan egindako ekarpenaren garrantziagatik) nahiz kualitatiboan (ekonomia sozialak Nafarroa kohesionatzeko emandako laguntzagatik) egindako ekarpena azpimarratu du. Gobernuak Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Plan Integral bat lantzeko bere konpromisoa helarazi du ere eta, horretarako, urrian partekatutako lan-talde bat eratuko da haren lanketa jorratzeko. Gobernuak eragile ekonomiko eta sozialekin egiten ari den elkarrizketa-errondan CEPESek parte hartzeko bere borondatea helarazi die ere.

CEPESek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko gobernu-organismoetan parte hartzea eskatu du formalki; Nafarroako Gobernuak balorazio positiboa egiten du ekonomia sozialeko ordezkariarekin batekin izateagatik NEZaren gobernu-organismoetan; hala, enpresa-aniztasuna ere hobetuko zen. Azkenik, Gobernukideek CEPESen prestutasun ona eta lankidetzarako borondatea egiaztatu ahal izan dute etorkizunean izan daitezkeen erronketan elkarrekin lanean jarduteko.

CEPESko ordezkariak honako hauek osatzen zuten: bertako lehendakari eta ANELko (Lan Kooperatibak eta Lan Sozietateak) lehendakari ere baden Ignacio Ugaldek; ANELen kudeatzaile Antonio Martínez de Bujandak; UCANen kudeatzaile Patxi Verak; Gizarteratzeko eta Laneratzeko Zentroen Elkarteko (CIS) lehendakariorde Angel Gastonek; CISko batzordeko Enrique Marcelinok; Nafarroako Fundazioen

lehendakari Mikel Archancok, haren batzordeko kide Ana Esparzak eta Valero Casasnovas eta Carlos Rey-k, REAS ekonomia alternatibo eta solidarioaren sareko idazkari eta kideek, hurrenez hurren.